Zenb_Num: 38 2019ko apirila
OROZKOKO UDAL ALDIZKARIA www.orozko.eus

# orozkogaur




## Orozko activa un proyecto contra la soledad de las personas mayores

El Ayuntamiento de Orozko pone en marcha en abril el proyecto piloto "Minimizando la soledad y el aislamiento en el entorno rural." con el objetivo de que las personas mayores que viven solas puedan permanecer en sus domicilios en buenas condiciones, reduciendo el aislamiento.

Los Servicios Sociales municipales guiarán la iniciativa, que también se apoyará en la ciudadanía para crear una red de protección que velará por el bienestar de estas personas. Estos agentes o "auzozainak" prestarán atención a las rutinas de la gente mayor con la que interactúa en su vida diaria y si observan algún cambio o situación que les preocupe, lo contrastarán con la propia persona mayor y su familia o lo trasladarán a los Servicios Sociales. La presentación será el día 11 a las 16:00 en Donibane Aretoa.

**Diagnóstico**
Ya ha concluido la fase de diagnóstico de la prueba y de ella se extrae que un 20,6% de la población de Orozko es hoy mayor de 65 años. Además, un 25% de las unidades de convivencia totales que existen en el municipio están compuestas por personas mayores que viven solas -muchas de ellas en el ámbito rural. Es por ello que desde el Ayuntamiento se considera de gran relevancia la implicación también de los vecinos y vecinas de Orozko en esta nueva iniciativa, subvencionada por la Obra Social La Caixa.

## Liburutegiak 'Txoko morea' ireki berri du



Orozkoko udal liburutegiak 'Txoko morea' sortu berri du, berdintasunaren aldeko liburuak eta beste hainbat argitalpen hartzeko helburuarekin. Espazio hori osatzeko, Berdintasun Arloa liburutegiko arduradunekin lankidetzan aritu da. Azpimarratzekoa da gaur egun bertan topatu daitekeen historiako emakume garrantzitsuen biografien bilduma.

**Ekarpen berriak**
Hala ere, eta 'Txoko morearen' eskaintza feminista osatze aldera, Berdintasun Arloak herritarrei proposamen berriak bidaltzeko aukera luzatu die. Horiek jasoko dira berdintasun.orozko@bizkaia.org helbidean edota liburutegian, zerbitzuan bertan zein liburutegia.orozko@bizkaia.org helbidea baliatuta.

# Arrancan los cursos de Laia Eskola en Orozko




El Ayuntamiento de Orozko participa por segundo año consecutivo en la iniciativa Laia Eskola de Aiaraldea, organizada por la Diputación Foral de Álava con el objetivo de fomentar el empoderamiento de las mujeres. La programación arrancó en octubre de 2018 y ahora será el turno de las citas que se celebrarán en el municipio.

Por una parte, los días 6 y 7 de abril tendrá lugar un curso de orientación. Quien participe aprenderá a orientarse en la montaña, fomentando la autonomía y la superación de miedos y obstáculos. Será de 10:00 a 14:00, impartido por Tontxu Ruiz de Larrinaga.

Por otra, en mayo se celebrarán cuatro sesiones de 2 horas para trabajar la biodanza. A través de la música y el movimiento, cada persona trabajará sus habilidades personales. Para participar será indispensable inscribirse en el área de Igualdad o escribiendo a berdintasun.orozko@bizkaia.org.

## El Ayuntamiento sufrió un robo durante el fin de semana del 9 al 10 de marzo

Un grupo asaltó el edificio consistorial el fin de semana del 9 al 10 de marzo. En un ayuntamiento hay poco de valor, por lo que el botín fue también escaso: unos pocos cambios, dos ordenadores portátiles de uso común utilizados para proyecciones, un proyector, un disco duro y dos móviles. El mayor daño ha sido el provocado en varias puertas, que fueron forzadas con palancas o a patadas.



## Aurtengo udan Orozkon udaleku irekiak antolatzeko lehiaketa abian da

Langabezian dauden pertsonen artean ekintzailetza sustatzeko asmoz, Orozkoko Udalak, aurten ere, udaleku irekiak antolatzeko lehiaketa abiatu du. Interesdunek maiatzaren 2ra arte izango dute parte hartzeko aukera. Induma Informazio Bulegoan aurkeztu beharko dira bi sobre: batean proiekuaren izena eta txostena (uztailaren 1etik 12ra arteko tartea hartu beharko du) eta bestean proposamena egiten duen pertsonaren CVa. Induma bulegoan egongo da informazio gehiago jasotzeko aukera infoinduma@yahoo.es helbidera idatzita edo 94 633 99 45 telefonora deituta. Bertan ere eskuragarri daude lehiaketaren oinarriak.

## OrozkoRock prest dago!




Datorren maiatzaren 18an, larunbata, 15:30etatik aurrera izango den OrozkoRock jaialdiaren kartela osatu da: Atom Rhumba, The Wizards, Eskean Kristo, Liher, Fetitxe, Moonshine Wagon, Pelax eta Moonshakers taldeak igoko dira oholtzara egun horretan haien azken lanak aurkezteko.

Sarrerak dagoeneko salgai daude interneten 15 euroren truke, www.orozkorock.eus gunean. Egunean bertan ere erosi ahalko dira, 18 euroren truke.

Orozkoko Udalak diruz lagundu du jaialdi honen lehenengo edizioa izango dena. Ekimenak, gainera, Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritako rock musikazaleen babesa izango du.

**Zozketa**

Antolakuntzak zozketan parte hartzeko boletoak ere salgai jarri ditu. Hiru opari egongo dira. Lehenengoa izango da hiru lagunentzako asteburua landetxe batean, bigarrena OrozkoRockeko musika taldeen material sorta eta hirugarrena Orozkoko produktuz osatutako saskia.

# Orozkok Ene Kantak ikuskizuna hartu du maiatzaren 4an



Orozkoko kiroldegiak Ene Kantak haurrentzako ikuskizun musikatua hartuko du maiatzaren 4an, larunbatean 18:00etan. BECeko Jai Erraldoian arrakasta lortu ondoren, taldeak 'Satorjator' antzerki berria aurkeztuko du Orozkoko taula gainean.

**Emanaldi berria**
'Satorjator: Lurraren bihotzera bidaia' ikuskizunean Eneko eta Nerea bidaia magiko batean murgilduko dira; oraingo honetan Lur planetaren bihotzera. Aitatxik emandako mapa bati esker, altxor magikoa bilatuko dute eta bertan lagun berriak zein aspaldikoak topatuko dituzte. Beldurrari eta hango abenturei aurre egingo diete abesten eta dantzan. Gainera, mugikorrekin ematen dugun gehiegizko denboraren gainean hausnarketa egingo dute gailu horien fundamentuzko erabilera bultzatuz eta galtzen ditugun orduak kritikatuz.

Emanaldia Orozkoko Udalak eta Eskolako Guraso Elkarteak antolatu dute elkarlanean.

**Apirilean salgai**
Sarrerak aurrez jarriko dira salgai Induma bulegoan. Apirilaren 8tik aurrera egongo da horretarako aukera 5 euroren truke. Hala ere, eskolako Guraso Elkarteko bazkideek 3 eurotan erosteko aukera izango dute. 600 ikusle ingururako tokia egongo da egun horretan Orozkoko kiroldegian.

Euskal munduko kirolari, musikari eta kultur arloan dauden pertsona ezagunekin batera egiten eta kantatzen dituzte abestiak Ene Kantak taldeko kideek, hala nola; Ruper Ordorika, Pirritix eta Porrotx, Fermin Muguruza, Gorka Urbizu Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi), Mikel San José, Gorka Iraizoz, Abel Barriola edota Juan Martínez de Irujo besteak beste. Abestiak dantzagarriak, berriak eta errezak dira, haurrei zuzenduak.

Ene Kantak taldeak Youtuben plazaratzen ditu bideoak eta haien kanalean 27.000 jarraitzaile dituzte.

## Bolsas reutilizables para reducir el uso de plástico

El Área de Medioambiente del Ayuntamiento de Orozko inicia en abril una campaña con la que repartirá en cada domicilio dos bolsas reutilizables de tela. Se pretende así reducir el uso de las bolsas de plástico, cuyo tiempo medio de uso es de 12 minutos y, sin embargo, requieren de más de 150 años para descomponerse. El diseño incluye el lema "Erosi Orozkon! Erosi euskaraz!" buscando impulsar asimismo la compra en los comercios locales y en euskara.




## Barnetegian parte hartzeko aukera izango dute gazteek

Ohi bezala, Orozkoko udalak barnetegia eskainiko du Gorbeiako aterpetxean apirilaren bukaeran. Aurten hilaren 27tik 30era bitarteko asteburuan izango da. Ekintzan izena emateko aukera izango dute Orozkon erroldatuta dauden eta 2002 eta 2005 urte artean (biak barne) jaiotako gazteek. 60€ ordaindu beharko ditu parte-hartzaile bakoitzak. Induma bulegoan egongo da izen emateko aukera apirilaren 1era arte. Inskripzioak eskainiko lekuak baino gehiago balira, zozketa egingo da apirilaren 12an 10:00etan udaletxean.

Informazio gehiago jasotzeko aukera dago Induma Bulegoan, 946 33 99 45 telefonora deituta edo mezu bat idatzita infoinduma@yahoo.es helbidera.



# ZINEMALDIA

**7** IGANDEA




**16:30**
**Wheely, atrápalo si puedes**




**19:00**
**El Gordo y el Flaco**

**14** IGANDEA




**16:30**
**El niño que pudo ser rey**




**19:00**
**La mula**

2018-2019 denboraldia bukatu da. Zinema eskaintza azaroan itzuliko da.

Ha finalizado la temporada 2018-2019 El cine se retomará en noviembre.

**HAURRAK/INFANTIL** 3,5€ · BONOA 12€
**HELDUAK/ADULTOS** 4,5€ · BONOA 16€

## Ludoteka eta Gaztetxoko zerbitzuek ordutegi berezia izango dute Aste Santuan

Ohi bezala, Induma zerbitzuak bere ordutegia moldatuko du Aste Santuko oporraldian. Aisialdi zerbitzua zabalik egongo da apirilaren 12tik 28ra, jai egunetan izan ezik. Hau da, hilak 18an, 19an, 21ean, eta 22an itxita egongo da. Orozkoko Ludoteka 11:00etatik 13:00ak arte egongo da zabalik eta Gaztetxokoa, berriz, 15:00 a 21:00 (28an 19:00ak arte).

# agenda

**6. CURSO DE ORIENTACIÓN**
Parte de Laia Eskola. Inscripción en berdintasun.orozko@bizkaia.org.
*10:00 - 14:00 Zubiaur plaza*

**7. CURSO DE ORIENTACIÓN**
Parte de Laia Eskola. Inscripción en berdintasun.orozko@bizkaia.org.
*10:00 - 14:00 Zubiaur plaza*

**7. ZINEMALDIA**
"Wheely, atrápalo si puedes" eta "El Gordo y el Flaco".
*16:30 / 19:00 Donibane Aretoa*

**8. VENTA DE ENTRADAS**
Desde el día 8 se podrán adquirir las entradas para el espectáculo Ene Kantak del 4 de mayo.
*5€ Induma Bulegoa*

**11. AURKEZPENA**
'Auzozainak' zaintza ekimenaren aurkezpen publikoa
*16:00 Donibane Aretoa*

**14. ZINEMALDIA**
"El niño que pudo ser rey" eta "La mula".
*16:30 / 19:00 Donibane Aretoa*







